

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko, lehenik eta behin, kotxe marka batekin elkarlana egitea gustatuko litzaiguke. Horretarako, Renault markan pentsatu dugu. Gure ustez, egin behar dugun lanerako hoberen egokitzen zaigun kotxe motak baititu, eta gertu dugu kontzesionarioa. Hasieran, furgoneta batekin nahikoa izango genuke. Gero, furgoneta gehiago izatea lortu dezakegu, enpresa aurrera doan heinean.

Bestalde, denda ezberdinekin lan egitea ere gustatuko litzaiguke, batez ere bertako dendekin. Baina gauza batzuk ezin dira herriko denda txikietan erosi. Horretarako, Eroski bezalako dendekin moldatuko ginateke. Denda txikietan, ogia, haragia, arraia, sendagaiak, etab. erosiko genituzke, eta Eroski bezalako dendetan berriz, komuneko papera, garbiketa produktuak, platerak, etab. Hala ere, beti saiatuko ginateke ahalik eta gutxien erosten horrelako dendetan, herriko denda txikiei laguntzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu eta.

Horretarako, gertu ditugun denda batzuk zerrendatu ditugu:

- Garin: ogia, yogurrak, gozoak, esnea...
- Pascual Gallego farmazia: botikak.
- Joxe harategia: haragia eta gazta.
- Goen arraindegia: arraina.

Azkenik, ile-apaindegi batekin aliatzea gustatuko litzaiguke. Horretarako, Gurutze ile-apaindegiarekin tratatu bat egin, eta bezero batek deitzean bere etxera igoko genuke. Etxean bertan eskainiko luke zerbitzua, eta berak normalean kobratzen duena kobratuko lioke bezeroari. Horrela, jende helduak ez luke orrazteko arazorik izango, eta ez lukete herrira jaisteko beharrik izango.